

DIRU-SARRERAK

Gure bezeroek tabernan bizpahiru orduz egongo direla estimatu dugunez, kalkula dezakegu, bezero bakoitzeko bi pintxo eta edari bat kontsumituko dituztela, hortaz, 4'5€ko irabaziak edukiko genituzke bezero bakoitzeko. Astearen egun bakoitzeko 120 bezero inguru izango ditugula estimatu dugunez, egun bakoitzeko 540€ko sarrerak izango genituzke. Asteburuetan berriz, 80 bezero estimatzen ditugu, hortaz, astebururo 720€ irabaziko genituzke. Laburbilduz, astero gutxi gora behera 3268€ko diru-sarrera edukiko dugula kalkulatu dugu. Hilabete batek 4 aste dituela kontuan hartuta, hilean 13072€ irabaziko genituzke. Urteak 52 aste izan arren, oporrak direla eta, uztailetik irailera negozioa ez dugunez irekiko, 156.864€ irabaziko genituzke, kontuan izanik, bezero bakoitzak bi pintxo eta edari bat kontsumituko dituela eta astebururo 80 bezero eta lanegunetan 120 bezero edukiko ditugula.

